TOLOSAKO UDALA

2025IORD0001

| | |
|---|---|
| **UNITATEA**<br>UNIDAD | **EUSKARA ETA HEZKUNTZA**<br>EUSKERA Y EDUCACIÓN |
| **XEDEA**<br>OBJETO | **AITZOL UDAL EUSKALTEGIAREN ERREGELAMENDUA**<br>REGLAMENTO DEL EUSKALTEGI MUNICIPAL AITZOL |

## IRAGARKIA

*Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiaren erregelamendua egin aurreko kontsulta publikoa.*

### Aurrekariak

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, VI. Tituluan arautzen ditu administrazio publikoen legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala, eta berritasun batzuk ditu aurreko erregulazioaren aldean, helburu nagusia izanik herritarren parte-hartzea areagotzea arauak lantzeko prozeduretan.

Hartara, 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontsulta publikoa egin behar da araudi-proiektu bat prestatu aurretik. Honako hau dio aipatutako artikuluak:

*«1. Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:*

## ANUNCIO

*Consulta pública previa a la elaboración del reglamento del Euskaltegi Municipal Aitzol de Tolosa.*

### Antecedentes

El Título VI de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, regula la iniciativa legislativa y la potestad reglamentaria de las Administraciones Públicas, con algunas novedades respecto de la regulación anterior, con el objetivo principal de incrementar la participación ciudadana en los procedimientos de elaboración de normas.

Así, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, debe realizarse una consulta pública previa a la elaboración de un proyecto normativo. El citado artículo dice lo siguiente:

*«1. Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:*

ESKU874f9e5a-0f11-49cb-b9f3-d58e8a430cfd

*a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*

*b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.*

*c) Arauaren helburuak.*

*d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak*».

*a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.*

*b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.*

*c) Los objetivos de la norma.*

*d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias*».

Oraingo honetan, Tolosako Udalaren asmoa da Aitzol Udal Euskaltegiaren erregelamendua egitea, eta legeak ezarritakoa betez, aldez aurreko kontsulta publikoa egingo du, erregelamendua idatzi eta onartu aurretik.

En esta ocasión, el Ayuntamiento de Tolosa pretende elaborar el reglamento del Euskaltegi Municipal Aitzol, y en cumplimiento de lo dispuesto en la ley, realizará una consulta pública previa antes de redactar y aprobar el reglamento.

Herritarrek, erakundeek eta elkarteek parte hartu ahal izango dute, hala iritziz gero, eta ekarpenak egin, Tolosako Udalaren Erregistroan aurkeztuta; herritar fisikoen kasuan, aurrez aurre edo modu telematikoan, eta pertsona juridikoen kasuan, modu telematikoan. Horretarako, 20 egun izango dituzte, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta.

La ciudadanía, las entidades y las asociaciones podrán participar, si lo estiman oportuno, y realizar aportaciones, mediante su presentación en el Registro del Ayuntamiento de Tolosa; en el caso de las personas físicas, de forma presencial o telemática, y en el caso de personas jurídicas, de forma telemática. Para ello, contarán con un plazo de 20 días a partir del siguiente a la publicación de este anuncio.

**Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak**

Udalbatzak 2015eko maiatzaren 27ko osoko bilkuran onartu zuen Aitzol Udal Euskaltegiaren barne-araudia. Hamar urte joan dira, eta arau hori egokitu egin behar da hainbat eremutan, puntu batzuk ez baitatoz bat euskaltegiaren egungo funtzionamenduarekin. Horrez gain, beste puntu batzuk erantsi behar zaizkio, izan diren lege-aldaketak aintzat hartzeko.

**Problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa**

El Pleno aprobó el 27 de mayo de 2015 el reglamento interno del Euskaltegi Municipal Aitzol. Han pasado diez años y hay que adaptar esta norma en varios ámbitos, ya que algunos puntos no se corresponden con el funcionamiento actual del euskaltegi. Además, hay que añadir otros puntos para tener en cuenta los cambios legislativos que se han producido.

ESKU874f9e5a-0f11-49cb-b9f3-d58e8a430cfd

**Erregelamendua onestearen beharrezkotasuna eta egokitasuna**

Aipatu denez, egungo barne-araudia egokitu egin behar da. Bestalde, arauaren izaera egokitu behar da: erregelamendua izango da, Aitzol Udal Euskaltegiaren antolaketa eta funtzionamendua arautuko baitu, zerbitzu publikoa den aldetik.

**La necesidad y oportunidad de su aprobación**

Como ya se ha mencionado, es necesario adaptar la actual normativa interna. Por otra parte, es necesario adaptar la naturaleza de la norma: se trata de un reglamento que regulará la organización y funcionamiento del Euskaltegi Municipal Aitzol como servicio público.

**Arauaren helburuak**

- Euskaltegiko funtzionamendua hobetzea.
- Indarrean dagoen legeriara egokitzea.

**Objetivos de la norma**

- Mejorar el funcionamiento del euskaltegi.
- Adecuarse a la legislación vigente.

**Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak**

Ez da ikusi beste aukera bideragarririk. Indarrean den barne-araudia indargabetu eta erregelamendu bat egitea da aukera.

**Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias**

No se han detectado otras alternativas viables. Se trata de derogar la normativa interna vigente y elaborar un reglamento.

ZINEGOTZI DELEGATUA / CONCEJALA DELEGADA

Garbiñe Marzol Ormazabal



EKS | CSV: **ESKU874f9e5a-0f11-49cb-b9f3-d58e8a430cfd**
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110*

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2025IORD0001-Aurretiazko iragarkia/Aurretiazko iragarkia (Tolosako Udala) |
|---|---|

Sinatzailea 1 / Firmante 1: MARZOL ORMAZABAL MIREN GARBIÑE - 72437984J
Data / Fecha: 2025/01/24 13:38:33